De haber logrado esos propósitos lo que a continuación les quedaba por proponer era el cambio de nombre de la localidad de Auritz/Burguete por otro mas acorde con la nueva situación que bien pudiera ser “Villafranca del Pirineo”, nombre que hubiese podido resultar muy apropiado para este municipio que ya ostenta el título de villa y con la exención de tributos propuesta por el PNV podría pasar a considerarse franca, tal y como lo hacían los reyes de la Edad Media dando privilegios y bulas al pago de tributos a ciertas poblaciones, añadiendo como lema o marca podrian proponer “Invierta en el BIC de Villafranca del Pirineo: nuevo paraíso fiscal”. Sin duda hubiera sido el salto a la fama del grupo municipal del PNV y un buen “broche de oro” a su gestión en estos momentos de la gran crisis económica, social y de valores en la que vivimos; y si estas propuestas les parecen irrisorias y estafalarias, cuanto mas lo es el pretender eximir del pago de impuestos a la mitad de los propietarios del casco urbano.

La Corporación se da por enterada.

20.- RUEGOS Y PREGUNTAS

Toma la palabra el concejal Sr. Martinez , que de la lectura formulada por el alcalde Sr. Irigaray, su grupo la estudiará y procederá debidamente a su contestación.

En cuanto a la propuesta de Euromontana que ya en sesión anterior se dijo que se presentaría para este pleno, se informa que por problemas de fecha de agenda de los ponentes no ha sido posible. En todo caso ya que no se convocan comisiones lo presentará directamente ante el Ayuntamiento.

Y no habiendo más asuntos que tratar siendo las 21,00 horas del mismo día se levantó la sesión de lo que doy fe.

Aurizko udaletxean, 2013ko maiatzaren 9ko 20:00etan, Udala bildu zen bilkura arrunta egiteko; bertaratu ziren zinegotziak: M^a Roncesvalles Azanza Burusco, M^a Aranzazu Oyarbide Lapazarán , Juan Manuel Azanza Burusco, Luis De Potestad Tellechea eta Jesús Martínez Rico, bilkuraburu alkatea, Jose irigaray Gil, izan zen eta idazkaria, udalbatzarena, Marisol Ezcurra Irure. Alejandro Otegi Echeverria jk. etortzerik ez duela jakinarazi du.

1.- 2013ko OTSAILAREN 26ko eta MARTXOAREN 19ko BILKUREN AKTEN ONESPENA

Udalbatzak erabaki du aho batez 2013ko otsailaren 7an, otsailaren 26an eta martxoaren 19an egindako bilkuren aktak onartzea.

2.- 2013ko OTSAILAREN 1etik MAIATZAREN 2a ARTE ALKATEAK EMAN DITUEN EBAZPENEN INGURUKO INFORMAZIOA

Alkateak, 2013ko otsailaren 1etik 2013ko maiatzaren 2a arte eman dituen ebazpenen inguruko informazioa eman du; horiek guztiak bilkurako espedientean daude eta udalkideak jakinaren gainean gelditu dira.

3.- 2012ko KONTUEN HASIERAKO ONESPENA

Udala Kontuen Batzorde Bereziaren lanak eginez ari da.

Kontuhartzaileak Kontuen Hertsieraren inguruko dokumentazioa aurkeztu eta azaldu du. Modu berean alkateak, Irigaray jk., esan du gastuen aurrekontua %38,12an gauzatu dela.

De Potestad jk. dio bere taldeak 2012ko aurrekontu osoari enmendakina aurkeztu ziola eta, nahiz eta kontuak Aranandi taldeak aurkeztu zuenarekin koherenteak izan, bere taldeak ez dituela 2012ko urtealdiko kontuak onartuko. Udalbatzak erabaki du aldeko 4 botoz (Azanza, Oyarbide, Azanza eta Irigaray) eta aurkako bi botoz (De Potestad eta Martinez)

1.-Kontuhartzaitzak egindako "Kontu Orokorra" onartzea

"Kontuen Batzorde Bereziaren Txostena" onartzea eta jendaurrean paratzea iragarki oholean, Nafarroako Toki Ogasunen Foru Legearen 242.3 artikulua dioenarekin bat eginez.

4.- 2013ko AURREKONTUAREN HASIERAKO ONESPENA

Alkateak, Irigaray jk., 2013ko aurrekontuak aurkeztu ditu, 526.978 €, eta esan du, orokorrean, partidak txikiagotu direla, are gehiago, baten bat desagertu ere aurreko urteko aurrekontuarekin alderatuta. Dauden aukerak kontuan hartuta, asmo handiko aurrekontua da. Inbertsioen artean eskolako teilatuaren konponketa, karriken zolaketa, Leader proiektua, Saroberriko pasealekua eta udal-baskularen berriketa.

De Potestad jk. dio bere taldeak aurrekontua errealitateari egokitu dela uste duela eta urtean zehar alternatibak aurkeztuko badituzte ere, ez dute onartzeko arazorik.

Aurrekontuak eztabaidatu ondoren erabaki da aho batez 2013ko aurrekontuak hasiera batean onartzea.

5.- 2013ko PLANTILLA ORGANIKOAREN ONESPENA

Alkateak, Irigaray jk. hitza hartu du eta jakinarazi du aurreko urtearekiko aldaketa bakarra dela M^a Jose Garralda Zubiriaren ordutegiaren egokitzapena. Udalbatzak erabaki du aho batez 2013ko plantilla organikoa honako izatea.

Funtzionarioak

Lanpostua. Zerbitzu Anitzetako Langilea. Plaza kopurua: 1. Sarbidea: Oposizio-Lehiaketa. Maila: E. Lan egoera: Jardunean. Mailako osagarria %15. Lanpostuko osagarria %15,77, lanaldi osoa.

Funtzionarioen izen-zerrenda

Z.A.L.: Jesús Román Pedroarena Etulain.

Lan kontratudun finkoak

Lanpostua. Administrari laguntzailea. Plaza kopurua: 1. Sarbidea: Oposizio-Lehiaketa. Maila: Lan egoera: Jardunean. Mailako osagarria %12. Lanpostuko osagarria: %28,35. Lanaldia: 28,56%.

Lanpostua. Administrari laguntzailea. Plaza kopurua: 1. Sarbidea: Oposizio-Lehiaketa. Maila: an egoera: Jardunean. Mailako osagarria:%12, Lanpostuko osagarria: %28,35. Lanaldia: 28,56%.

Lanpostua. Zerbitzu Anitzetako Langilea. Plaza kopurua:1 Sarbidea: Oposizio-Lehiaketa. Maila: Lan egoera: Jardunean Mailako osagarria: 15%. Lanpostuko osagarria %8,77, Lanaldia: 35%.

Lan kontratudun finkoen izen-zerrenda.

Administrari laguntzailea: Ana Isabel Erneta Erro.

Administrari laguntzailea: María José Garralda Zubiri.

Zerbitzu Anitzetako Langilea: Cristina Carra Garcia.

Behin-behineko lan kontratudunak:

Lanpostua. Euskara teknika. Plaza kopurua: 1. Sarbidea: Oposizio-Lehiaketa.Euskara.Maila: Lan egoera: Jardunean. Lanpostuko osagarria %6,73, lanaldi osoa.

Behin-behineko langileen izen-zerrenda:

Euskara teknika: Teresa Iribarren Larrea.

Orreaga eta Erroibarko Udalekin bateratutako zerbitzuak

Kargua: Idazkaria. Plaza kopurua:1.Sarbidea: Oposizio-Lehiaketa.A Maila. Lanpostuaren osagarriak %40, Bateriaezintasuna %35 Lanaldi osoa

Administrazio lan araubidean kontratatutako langileen izen-zerrenda:

Bitarteko idazkaria. Egoera: Jardunean. Antzintasuna 2012/06/11

6.- BATZARREA: KONTUAK ETA AURREKONTUAK

Udalbatzak, alkateak proposaturik, kontuen eta aurrekontuen inguruko Batzarrea egitea erabaki du heldu den maiatzaren 24an 19:30ean.

7.- 5 POLIGONOKO 15 LURZATIKO 80,32 M2 IRIGARAY ANAI-ARREBEI EGINDAKO SALMENTAREN SAILKAPEN JURIDIKOKO ESPEDIENTEAREN ETA HAREN ESKRITURA PUBLIKOAREN BEHIN BETIKO ONESPENA

Jendaurrean egon den bitartean alegaziorik ez dela aurkeztu ikusirik, aho batez erabaki da 5 poligonoko 15 lurzatian soberan dauden 80,32 m2en (lehen plaza publikoa zena) sailkapen juridikoko espedientea behin betiko onartzea Irigaray anai-arrebei saltzeko, 2012ko apirilaren 19an egindako bilkuran hartutako erabakiari jarraikiz.

Modu berean balorazio teknikoa egin da eta urriaren 18ko 280/1190 foru Dekretuan eskatutako gainontzeko baldintza betetzen direla kontuan harturik, aho batez erabaki da Irigarai jaunari ahalmena ematea notarioaren aurrean agertu eta soberan dagoen lurzatia saltzeko behar den dokumentazioa sinatzeko.

8.- HIRIGINTZAKO DETERMINAZIO XEHAKATUETAKO ALDAKETA PUNTUALA. BEHIN BETIKO ONESPENA.Aurizko Udal Plan Orokorraren

eraikuntzako baldintzei zein baldintza estetikoei buruzko 129.4 a) artikulua eta Aurizko multzo historikoaren babes plan bereziaren 67.6 a) artikulua.

Aurizko Udalak, jendaurrean egon den bitartean alegaziorik aurkeztu ez denez eta Ondare Historikoaren Zerbitzuak emandako txostena aldekoa dela kontuan hartuz, erabaki du aho batez hirigintzako determinazio xehakatuaren aldaketa puntuala behin betiko onestea: Aurizko Udal Plan Orokorren eraikuntzako baldintzei zein baldintza estetikoei buruzko 129.4 a) artikulua eta Aurizko multzo historikoaren babes plan bereziaren 67.6 a) artikulua.

Ondoren agertzen den testu osoa Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

1.–Aldaketa onestea Hiri lurzoru urbanizagarriaren araudi partikularraren 129.4.a) artikuluan (eraikuntzako baldintzak eta baldintza estetikoak), Aurizko Udal Plan Orokorrean; aldaketa onetsi ondoren honela geratuko da:

129. art. Estalkien baldintzak.

“4.a) Tximiniak obrakoak edo burdinazkoak izango dira; beste material metaliko batez eginak direnean adreiluz estaliko dira. Estaldura entokatua edo bistako adreiluzkoa izaten ahalko da, gorri kolorekoa”.

{0><}0{>2.–Aldaketa onestea Hiri lurzoruaren araudi partikularraren 67.6.a) artikuluan (Haiserako gunearen ordenantza: ORD-A), Aurizko Multzo Historikoa Babesteko Plan Bereziaren; aldaketa onetsi ondoren honela geratuko da:<0}

67. art. Eraikin nagusiaren estalkiak

4.a) Tximiniak obrakoak edo burdinazkoak izango dira; beste material metaliko batez eginak direnean adreiluz estaliko dira.. Estaldura entokatua edo bistako adreiluzkoa izaten ahalko da, gorri kolorekoa”.

9.- HIRIGINTZAKO DETERMINAZIO XEHAKATUETAKO ALDAKETA PUNTUALA. BEHIN BETIKO ONESPENA. Hirigintzako determinazio xehakatueta aldaketa puntuala:

Udal Planeko Bizitegirako eraikinen ordenantzen 128.2 artikulua.

Aurizko Udalak, jendaurrean egon den bitartean alegaziorik aurkeztu ez denez, erabaki du aho batez hirigintzako determinazio xehakatuaren aldaketa puntuala behin betiko onestea: Hirigintzako determinazio xehakatueta aldaketa puntuala:

Udal Planeko Bizitegirako eraikinen ordenantzen 128.2 artikulua.

Ondoren agertzen den testu osoa Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

128. art.- Lurzatiaren itxitura.

2.“Garapen berrietako eremuetan, eraikina lerrokadura ofiziala baino atzerago dagoenean, eraikinaren aldeetako itxiturak fatxadako planoak baino 10 cm atzerago egingo dira, eta jada urbanizatuak dauden sektore finkatueta lerrokadura ofizialari jarraikiz egingo dira.”

10.- BALORAZIO PONENTZIAREN BEHIN BETIKO ONESPENA

Alegazioak jartzeko epean ezta bat ere aurkeztu ez dela kontuan hartuz, aho batez erabaki da Balorazio Ponentzia behin betiko onartzea, Lurralde Aberastasuneko Erregistroaren eta nafarroako Katastroen azaroaren 21eko 12/2006 Foru Legearen 36. artikulua arabera.

11.- AHARIEN BORDAREN ADJUDIKAZIOA

Aharien Bordaren alokairuari eta otsailaren 7an hartutako erabakiari dagokionez, alkateak, Irigaray jk., hitza hartu du eta eskaerak aurkezteko iragarkia zein epeari dagokionez esan du esakera bakarra aurkeztu dela, Alfonso Mendikoarena.

Ikusirik onetsitako baldintza pleguan ezarritako baldintzak betetzen dituela, 280/1990 Foru Dekretuaren arabera, Udalbatzak erabaki du aho batez:

- 1.- Aharien Bordaren alokairua Alfonso Mendicoari adjudikatzea.
- 2.- Landa Garapeneko Departamentuak egindako txostenaren arabera, errentamendu-kontratua Jauregiaroztegi-Osamietako bazkalekuaren epe berdinerako izango da.
- 3.- Aprobetxamendua urtekoa izango da eta kanona 1800 € izango da (13-02-07ko aktaren erabakiaren arabera) eta urte bakoitzeko abenduaren 15a baino lehen ordainduko da; 2013ko abenduaren 15a baino lehen ordainduko da eta horrela hurrenez hurren.

12.- GAZTEEI LEKU BAT UZTEA

Ikusirik 14 eta 18 urte bitarteko gazteek eskatu dutela leku bat uztea elkartu ahal izateko. Alkateak hitza hartu du eta esan du duela urte batzuk Udalak leku bat utzi ziela gazteei baina hertsiki behar izan zutela desastre hutsa izan zelako. Hori dela eta, proposatu du leku bat uztea baina alde aurretik batzorde bat osatzea Udalaren bi ordezkari, bi guraso eta gazte batez. Hori guztia funtzionamendu arau batzuk ezartzeko, arazoak sahiestu eta berriz ere lekua hertsiki behar ez izateko.

Gaia eztabaidatu ondoren, aho batez erabaki da:

- 1.- Gazteek eskatutako onartzea eta elkartzeko zein jarduerak egiteko leku bat uztea.
- 2.- Batzorde bat osatzea, Udalaren aldetik Josu Martinez eta Joxepe Irigaray sartuz, baita eskatzaileen gurasoetako bestei bi eta gazte bat.

13.- LEADER PROGRAMARAKO PROIEKTUA ONARTZEA

Alkateak, Irigaray jk., esan du Cedernak bilera egin zuela eskualde mailan Leader Progama adostu eta sartuko den proiektua aukeratzeko, lehentasunen hurrenkera ezarriz. Udalak bi proiektu aurkeztu zuen, bat "Luzaideko Natur Ondarearen balioztapena", horrela izendatua Lindus proiektuarekin ez nahasteko, eta bigarrena, eskolako teilatua, hori deuseztatu zutela badagoelako beste finantziario-bide bat eta bateraezina da. Azkenik, Luzaide, Orreaga, Aezkoa, Auritz eta Erroibarko toki entitateek adostu zuten lehenengo

Esteribarko proiektuari lehentasuna ematea, hots, Zubiriko Eskolako leku estaliarena, eta, bigarrenik, Aurizko Udalak aurkeztutakoa ere aurkeztea. Udalbatzak erabaki du aho batez "Aurizko Natur Ondarearen balioztapena" izeneko proiektua onartzea Leader Programan sartzeko.

14.- MANUEL ETULAIN URRUTIA JK. LOIGORRIKO BARATZARI BURUZ 2013KO OTSAILAREN 7AN HARTUTAKO ERABAKIAREN AURKA JARRITAKO BERRAZTERTZEKO ERREKURTSOA

Alkateak, Irigaray jk., hitza hartu du eta esan du Manuel Etulain Urrutia jk. helegitea jarri duela 2013ko otsailaren 7an Udalak hartu zuen erabakiaren aurka; haren bidez ez zen onartu 6 poligonoko 273 lurzatiaren titulartasunaren erreklamazioa.

Etulain jk. jarri duen errekurtsua honako alegazioetan oinarritu da:

Hasteko esaten du Udalak arbitrariotasunez aritu dela antzeko eskaerei beste era batera erantzun baitie, eta Eskarramaneneko eta Andreseneko baratzen titulartasunari buruz bere garaian emandako argudio berdinak eman ahal zirela orain berak egindako eskaerari, eta bigarrenik dio Udalak egindako inmatrikulazioa ez zela argitaratu administrazioak ondasunak inmatrikulatu behar dituen aritzeko duen moduarengatik.

Alkateak, Irigaray jk., dio Etulain jaunak aipatzen duen arbitrariotasunari buruz, nahiz eta aipatzen dituen kasuak berdinak diruditen, ez direla berdinak. Eta jabetzaren erregistroari dagokionez, Udalak, bere eskubideetaz baliatuz, inmatrikulatu duela dio, eta inork ez duela errekurtsorik jarri. Hortaz, errekurtsogileak alegatutakoa argitu edo justifikatzen duen dokumentaziorik aurkeztu ez duenez, eta idazkariak egin duen txostena ikusita, berraztertzeko errekurtsua ez onartzea proposatu du.

De potestad jk. hitza hartu du eta esan du bere taldeak hemen aipatu diren espedienteak aztertu nahi dituela eta proposatu du gaia kentzea gai zerrendatik. Alkateak, Irigaray jk., erantzun du gai hauek aurreko bilkuretan sartuak izan direla eta idazkariak aztertu dituela, egindako txostenean nabaria denez, espedientea zinegotzien eskura egon dela eta ez duela inola zentzurik orain gaia zerrendatik kentzeak.

Manuel Etulain Urrutia jk. Udalak 2013ko otsailaren 7an hartu zuen erabakiaren aurka jarritako berraztertzeko errekurtsua ez onartzea erabaki da, aldeko lau botoz (Azanza, Oyarbide, Azanza eta Irigaray) eta aurkako bi botoz (De Potestad eta Martinez).

Gai zerrendatik kanpo proposatu da Manuel Etulain Urrutia jk. Loigorriren baratzaren titulartasunari buruz jarritako berraztertzeko errekurtsu berezia. Zinegotzien artean adostasunik ez dagoenez gaia hurrengo bilkurarako uztea erabaki da.

15.- PEDRO ECHEVERRIA PARIS JK. BARATZA EDUKITZEKO EGIN DUEN ESKAERA

Ikusirik Pedro Echeverria Paris jk. eskatu duela lehenago Albina Eslava Ardaiz ak. erabiltzen zuen baratza berak erabiltzea.

Aho batez erabaki da Pedro Echeverria Paris jaunari 6 poligonoko 27 lurzatia uztea, Maiorlategian.

16.- URTASUN ERRO ANAIEN (ZALDARRIAGA) LEHEN ERABILERAKO LIZENTZIA

Alkateak, Irigaray jk., hitza hartu du eta esan du Urtasun anaiek egindako lehen erabilerako lizentzia eskaerari dagokionez, nahiz eta gai hauek bilkuratik pasatu behar ez diren, kasu honetan izandako egoera berezia denez, egokia irudituz zaiola osoko bilkuran ikusi eta aztertzea, eta ondoren azalpen hauek eman ditu:

Aurizko herri guneko 5 poligonoko 41 lurzatian Urtasun Erro anaiek eraikin bat zaharberritzeko sustatu duten lanetaraik sortutako 3 etxebizitzaren lehen erabilerako lizentzia bideratu da. 2013ko urtarrilaren 30ean udalaren arkitekto aholkularia ikuskatu zuen, sustatzaileek aurkeztutako lehen erabilerako lizentziaren ondoren. 2013ko otsailaren 6an informea egin zuen eta Udalari proposatu zion honakoak eskatzea: *“lurzatiaren barnean aparkatzeko 6 leku gordetu izanaren baldintza bete dela justifikatzea.. Plaza horiek ongi mugatuak eta zolan margotuak egon behar dute.”*

2013ko martxoaren 12an eskakizun horri erantzuna ematen dion dokumentazioa sartu zen Aurizko Udalean.

Data berdinean katastroaren aldaketa egiteko eskaera sartu zen Udalean eta horretan 1995ean, Udalaren baimenik gabe, eskuratu eta erregistratu zen lurzatiaren banantzea isladatzen da, urte hauetan guztietan Udalak horren berri izan ez badu ere. Alkateak dio notario batek egin zuela nahiz eta gezurra dirudien, ez baitu udalaren baimenik, baina denbora asko pasatu denez ez dagoela atzera egiterik.

2013ko martxoaren 13an Aurizko Udalak txosten berria eskatu zuen lehen erabilerako lizentzia eman aurretik.

Sustatzaileek zaharberritze lanen, jabetza horizontalaren eskrituraren, komunitate erregimenaren, jabetza irekietaren iraungipenaren eta adjudikazioen aitortzea eta idazkia aurkeztu dituzte. Horietan honakoak aipatzen dira:

1.- Etxea dagoen lurzatia ez dagoela behar bezala inskribatua Katastroan, bai berriz Jabetza Erregistroan.

2.- Hasierako lurzatiaren zati baten banantzea 1996tik egina dagoela, beraz, bai zaharberritze proiektua nola katalogoaren fitxa eta BBPrentzatiketa 5 poligonoko 41 lurzatian oinarritzen direla eta hori gaur egun ez da existitzen.

3.- Katalogoaren fitxak ezarri duela eraikin nagusiarentzako hiri-erregimeneko II Graduko mantentze maila, ingurumen babesa, eta Plan Berezikoko zein ORD-A Ordenantzen hirigintza arautegia aplikatuko zaiola.

4.- Proiektuan proposatu zen 5 poligonoko 41 lurzatian aparkatzeko 6 plaza, bananketa kontuan hartu gabe.

5.- Sustatzaileek diote BBPre 46.3. artikulua aplikatu behar dela *“Hala ere etxebizitza bakoitzeko aparkaleku kopuruaren betekizuna lurzatiaren edo eraikinaren ezugarriak direla baldintzak ezin direla bete justifikatzen bada salbuetsita egongo da.”*

6.-Azkenik proposatu da banandutako lurzatiaren jabearekin negoziatu ahal dela bere lurzatian libre duen zatian zorduntzaren bidez erabiltzea aparkaleku gisa, etxeak izan dituen 4 plazak mantenduz.

Katastroaren egoerari eta banandutako lurzatiari dagokionez:

Lurzatiari dagokion katalogoaren fitxak ezartzen du lurzati **banaezina** dela. Aurizko Udalak ez zuen eskuratu eta erregistratu aurretik banantzeko lizentziarik eman, eta obra baimena eman zuenean ez zekin bananketa egin zela. Izatekotan ere bananketa notario bidez eskuratu, erregistratu eta Udalari jakinarazi zitzaion lehen erabilerako baimena eskatu ondoren.

Horren guztiaren aurrean ondorioztatzen da eraikin nagusia hiru etxebizitzatan banantzen dela, beraz esakti zaion leku erreserba aparkatzeko 6 plazen orde 5 izan daiteke, lurzatiaren edo eraikinaren barnean.

Lurzatiaren baldintzei dagokienez.

Bai hirigintzako arautegi orokorra (46. art.) nola BBPko katalogoaren fitxan aipatutako baldintzetan ezartzen da eraikin nagusia hiru etxebizitzatan banantzeko **baldintza** hirigintzako arautegian ezarritako aparkaleku kopurua bete behar dela etxebizitza kopurua handitzen den kasuetan.

Katalogoaren fitxak lurzatiaren aukerak modu zehatzean aztertu ditu eta horregatik aipatzen du zehazki **baldintza** hori.

Plaza kopuruaren erreserba bete ezin delari dagokionez:

Obra lizentzia eskatu zenean, Plan Berezia indarrean ez zegoenez, Udalak txostena eskatu zion Plana idatzi zuen arkitektoari, eta horretan aipatzen zen 5 plaza erreserbatu behar zirela eta irtenbideak proposatu zituen, hala nola *“ondoko eraikina aprobetxatzea, edo hura eta Berexi karrikaren arteko zatia, edo itxitura egin den tokian pareta kentzea eta aparkalekuak lerroan aurreikustea.”*

Lurzatian edo eraikinean aparkalekuak aurreikustea eraikina banantzeko **baldintza** da.

Sustatzaileek aparkaleku plazen erreserba proposatu dute bananketa kontuan hartu gabe.

Sustatzaileek azaldutako arrazoiei dagokienez:

- BBPeko 48. artikulua baratzen eta lorategien erabilerari dagokio. 41 lurzati **bizitegi**-erabilerakoa da eta **bizitegi askeko lurzatiaren** erabilera dauka, beraz artikulua horrek ez dio eragiten.

- Zaharberritze lanen, jabetza horizontalaren, komunitate erregimenaren, jabeakidetzaren iraungipenaren eta adjudikazioen eskurak jabetzari bakarrik eragiten dio, hirigintza planeamenduak lurzoruaren erabilerari ezartzen dionaz aparte.

- Etxebizitzen kopurua handitzen denean aurreikusitako aparkalekuen bidez lurzatietan mota horretako beharrei erantzun nahi die, hiri-lurzoru finatuan zaila baita aparkalekuak izatea lurzoru publikoan. Plan Bereziaren baldintza hori bat dator Lurraldearen antolakuntzako eta Hirigintzako 35/2002 Foru Legearen izpirituarekin, planeamenduaren aldaketan kasuan etxebizitza kopurua igotzen bada, aparkalekuak ere igotzea eskatzen baitu.
- Proiektuaren planoaren arabera aurreikusita zuden aparkalekuen tokiak 4,70 metroko sakonera zeukan, baina bertan neurtu ondoren, benetan duen neurria 4,50 metrokoa da.

Ez Aurizko Udal Planak ezta BBPk ere ez dute aparkatzeko plazen gutxieneko neurriak arautzen, eta lurzatiaren inguruetan dauden beste plaza batzuk ikusita, 4,50 m neurri onargarria izan daiteke, beraz, badago toki nahikoa etxearen eta karrikaren artean aparkalekurako.

Sustatzaileek aurkeztutako proposamenari dagokionez:

Lanak egitean lehen ikuilua zen tokira sartzeko zegoen leku librea okupatu da, pareta bat jarriz eta lorategia handituz, eta horrek ekarri du lurzatian zegoen leku librea txikiagotu dela.

- Banadutako lurzatian aparkatzeko 4 plaza erreserbatzeko proposamenak ez du betetzen Plan Bereziak eskatutakoa.

Azaldutako guztia eta Udalaren arkitekto aholkulariak eta idazkariak egindako txostenen arabera, alkateak, Irigaray jk., proposatu du:

1.- Sustatzaileek banadutako lurzatiako leku librean aparkatzeko 4 leku egiteko proposamena onartzea, beti ere, lehen erabilerako lizentzia eman aurretik Jabetza Erregistroan inskribatutako erabilera-zortasunaren eskritura ekartzen badute, plaza horien kokapena eta neurriak argi eta garbi azalduz eta aparkalekuen egokitzapena eta seinalizazio lanak eginez.

2.- Lehen erabilerako baimena eskatu duten Urtasun anaiek ondoko lurzatiaren jabearekin Udalak ezarritako baldintzetan adostasun batera iritsi ezean, eta eskatutako aparkaleku kopuruaren betekizuna bete ahal denez, aparkaleku horiek 41 lurzatiaren egoitzako erabilera askea duen zatian egin beharko liriteke edo bestela eskatutako plaza kopurua jaitea lehen ikuilua zeneko tokian orain lorategia jarritako horretan.

De Potestad jk. hitza hartu du eta esan du gaia alkatetzaren eskumenekoa denez alkateak ebatzi behar duela, nahiz eta gaia batzordean ere tratatu behar duela uste duen, badagoelako NAAREN epaia baitago, lehen erabilerako lizentziari buruz Arartekoak egindako txostenean oinarritua, eta hori aztertu ondoren ebaztea. Berak dio ez dela Udalaren errua izan, baizik eta sustatzaileena.

Azkenik proposatu du lizentzia ematea sustatzaileek horren beharra baitute.

Alkateak, Irigaray jk., hitza hartu du eta esan du hirigintzako batzordeko kideak bilera egin zutela Iruñean sustatzaileekin, arkitektoarekin eta Udalaren idazkariarekin eta horretan espedientean aztertu eta eztabaidatu zen hasieratik. Modu berean espedientea zinegotzi guztien eskura egon da, beraz, zer batzorde

gehiago egin behar da, eta De Potestad jaunak egin duen proposamenari dagokionez, esan du ez dela bideragarria, lehen erabilerako lizentziaren bidez eskatutako baldintza gutziak betetzen direla bermatu nahi baita.

Ondoren, bozketa egin da eta alkatearen proposamenak aldeko 4 boto lortu ditu (Azanza, Oyarbide, Azanza eta Irigaray) eta bi abstentzio (Martinez eta De Potestad), eta honetan datza:

1.- Sustatzaileek banandutako lurzatiko leku librean aparkatzeko 4 leku egiteko proposamena onartzea, beti ere, lehen erabilerako lizentzia eman aurretik Jabetza Erregistroan inskribatutako erabilera-zortasunaren eskritura ekartzen badute, plaza horien kokapena eta neurriak argi eta garbi azalduz eta aparkalekuen egokitzapena eta seinalizazio lanak eginez

2.- Lehen erabilerako baimena eskatu duten Urtasun anaiek ondoko lurzatiaren jabearekin Udalak ezarritako baldintzetan adostasun batera iritsi ezean, eta eskatutako aparkaleku kopuruaren betekizuna bete ahal denez, aparkaleku horiek 41 lurzatiaren egoitzako erabilera askea duen zatian egin beharko lirateke edo bestela eskatutako plaza kopurua jaitea lehen ikuilua zeneko tokian orain lorategia jarritako horretan. Eta erabaki honen berri Urtasun Erro anaiei jakinaraztea.

17.- ABENTURA PARKEKO BALDINTZA PLEGUAREN ONESPENA

Orain arte adjudikazioa izan dutenek utziko dutenez, aho batez erabaki da:

1. Aurizko Abentura Parkeko instalazioen kudeaketaren errentamendua adjudikatzeko lehiaketa egitea.
2. Adjudikazioa eta jarduera arautuko duten baldintzen plegua onartzea.
3. Nafarroako Gobernuak kontratazio atarian argitaratzea.
4. Kontratazio Mahaian arituko diren zinegotziak izendatzea: Miren Oyarbide eta Luis de Potestad, baita alkatea ere, José Irigaray.

18.- MARTIN SUAREZEK ETXEBIZITZAREN ALOKAIKUA LUZATZEKO EGIN DUEN ESKAERA

Ikusirik Martin Suarez Arbillak "Maistraren pisua" izeneko etxebizitzaren alokairua luzatzeko eskatu duela.

Udalbatzak erabaki du aho batez Martin Suarez Arbillak alokatua duen pisuaren kontratua urte baterako luzatzea.

19.- BESTERIK

Berroaundiko bazkalekuak

Alkateak, Irigaray jk., dio Berroaundiko bazkaleku naturala berreskuratzeko sasi-kenketa lanak bukatu direla eta sastrakadi izatetik bazkaleku izatera pasatu dela, hemendik aitzina bi urtez behin garbiketa lana egin beharko dela baina merkeago izango direla eta baita ongarritu beharko direla kalitatea hobetzeko.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

Sigpaceko alegazioak

Alkateak jakinarazi du epearen barnean alegazioak aurkeztu direla Berroaundiko lurzatiengururua eta eskatu dela zuhaixka-bazkalekuak kontsideratzen diren lurzati gehienak eta baso izaera duen beste bat, egindako lanen ondoren, bazkaleku kontsideratzea.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

Auzolana etaazienda-marka

Alkateak dio aurten bi auzolan egingo direla neguan hondatu diren bideak konpontzeko, lehenengoa aurreko larunbatean egin zen eta berrogeita hamar bizilagun agertu ziren, bestea ekainean egingo da eta azienda marka, eguraldiak laguntzen badu, maiatzaren 18an egingo dela.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

Tararai

Alkateak dio Tararain hurrek jaso zuten dirua, meriendarena kenduta, 700 € dela eta haur parkea konpondu zein Kultur Etxean haurrentzako ekitaldiak antolatzeko erabiliko dela.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

Ikastetxe publikoa

Alkateak jakinarazi du bilera egin zutela Pirinioko udalerrietako alkateek Otsagabian ikastetxeetako mantentze lanak egiteko laguntza eskatzeko Hezkuntza Departamentuari eta bileran aipatu zuela Aurizko eskolako teilatua oso gaizki dagoela azkeneko elurteen ondorioz, haren egiturari eragin baitiote. Gestioak egiten ari dela konponketa lanak egiteko laguntza bilatuz.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

Elurteek eragindako kalteak

Alkateak jakinarazi du bilerak egin dituela Tokiko Administrazioiko Departamentuarekin eta horietan azaldu diela neguan izandako elurteek kalte handiak eragin dituztela eta beharrezkoa dela laguntzak jasotzea, eta aseguru etxearen erantzunaren zain dagoela eskoletako, komun publikoetako eta Kultur Etxeko teilatuak konpontzeko.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

Baso-jarduketan plana

Alkateak, Irigaray jk., jakinarazi du Landa Garapeneko Kontseilariarekin, Esparza j., bilera izan zuela eta basoetan hobekuntzak egiteko dirulaguntzak murriztu ondoren sortutako egoera azaldu zitzaiola, baita horrek lanpostuetan izango dituen eraginak eta, epe luzera, basoen kalitatean ere.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

Luzaiderekiko hitzarmena

Alkateak, Irigaray jk., jakinarazi du Luzaideko Udalarekin batera bazkatzeko hitzarmena aztertzen ari direla, Aurizko azienda Luzaideko dermionan bazkatu ahal izateko.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

Udaletxeko zurgintza-lanak

Alkateak jakinarazi du Erabilera Askeko Fondoan kargura Garraldako zurginak, Ion Iriartek, osoko bilkuren aretoko lehio bat aldatu eta atariak konpondu dituela eta horrek energia aurrezten lagunduko duela.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

Luis de Potestad Tellechea jk. Pedro Maria Tellechea Lus jaunaren izenean jarritako 12-05404 gora jotzeko errekurtsoren 1474 ebazpena.

Alkateak, Irigaray jk., jakinarazi du NAAk Udalaren aldeko ebazpena eman duela Luis De Potestad Tellecheak Pedro Maria Tellechea Lus jaunaren izenean jarritako errekurtsoren gainean; haren bitartez Udalak 2012ko hiri kontribuzioari zegokion likidazioaren aurka joatzen zuen, errekurtsoa jarri zutenek uste baizuten bere jabetzako ondasunak KIO delakoaren barne daudenez, ez dutela zertan kontribuziorik ordaindu behar.

Ondoren, alkateak, Irigaray jk., honakoa irakurri du:

En la sesión de 26 de febrero pasado en la que fue aprobado el informe defensor de las tesis del Ayuntamiento en este asunto, argumentaba el concejal Martínez Rico para no aprobarlo la negativa del Alcalde a encargar un informe al respecto en el momento en el que el PNV planteo la duda de la legalidad del cobro de tasas e impuestos en el conjunto del BIC y añadía que esta negativa les había obligado a interponer el recurso.

El informe emitido al efecto por el letrado D. Héctor Nagore Sorabilla asciende a un importe de 629,20 euros, a lo que hay que añadir el coste de tiempo empleado por los servicios municipales y los medios propios utilizados, un montante económico nada despreciable en unos momentos donde se debe proceder con austeridad en el gasto, modo de actuar que el grupo local del PNV defiende siempre que tiene ocasión proponiendo la reducción de gastos ordinarios, pero que en la realidad actúa de forma totalmente contraria a la que predica, haciendo gastar semejante cuantía para resolver una duda tan absurda que hasta el TAN, con una rapidez inusual de tres días ha emitido la resolución a tan ridículo recurso.

Porque para resolver esa duda no era necesario acudir a los tribunales o encargar informes, les hubiese bastado con unas llamadas telefónicas a los ayuntamientos que tienen declarados BIC sus conjuntos históricos, a la Federación Navarra de Municipios y Concejos, a la Sección de Riqueza Territorial o a ayuntamientos como Lesaka o Baztan donde existen declaraciones individualizadas de edificios.

Lo que no es de recibo por parte del PNV es dar a los vecinos en su boletín de mayo del pasado año información errónea, que como primera consecuencia fue la de crear falsas expectativas que este Ayuntamiento ha tenido que frenar para evitar que hubiera impagos por este motivo y tener que cobrar recibos con el 20% de recargo.

Debido a que el tema está legislado correctamente como lo deja claro la resolución emitida por el TAN, no se ha llegado a una situación cuyas consecuencias posteriores hubieran sido una delicadísima situación económica de esta Institución que pudiera poner en peligro su viabilidad y una quiebra social sin precedentes por semejante desigualdad en el municipio, quizás objetivos que se buscaban con el recurso.

De haber logrado esos propósitos lo que a continuación les quedaba por proponer era el cambio de nombre de la localidad de Auritz/Burquete por otro

mas acorde con la nueva situación que bien pudiera ser “Villafranca del Pirineo”, nombre que hubiese podido resultar muy apropiado para este municipio que ya ostenta el título de villa y con la exención de tributos propuesta por el PNV podría pasar a considerarse franca, tal y como lo hacían los reyes de la Edad Media dando privilegios y bulas al pago de tributos a ciertas poblaciones, añadiendo como lema o marca podrian proponer “Invierta en el BIC de Villafranca del Pirineo: nuevo paraíso fiscal”. Sin duda hubiera sido el salto a la fama del grupo municipal del PNV y un buen “broche de oro” a su gestión en estos momentos de la gran crisis económica, social y de valores en la que vivimos; y si estas propuestas les parecen irrisorias y estafalarias, cuanto mas lo es el pretender eximir del pago de impuestos a la mitad de los propietarios del casco urbano.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

20.- GALDERAK ETA ESKARIAK.

Martinez jk. hitza hartu du eta esan du bere taldeak Irigaray jk. irakurritako testua aztertuko duela eta erantzuna emango diola.

Aurreko bilkuran Euromontana proposamenaren inguruan aipatu zen gaurko bilkuran aurkeztuko zutela, baina ezin izan da aurkezleek ez dutelako etortzeko aukerarik izan. Hala ere, batzordeak deitzen ez direnez, Udalari aurkeztuko zaio.

Eta besterik gabe, bilera bukatutzat eman da 21:00etan, eta nik neuk akta idatzi eta fede eman dut.